

2.011KO ABUZTUAK 11.

EZ OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

**ALKATEA
ZINEGOTZIAK:
Bertaratuak:**

Maria Jesus Salsamendi Astiazaran

Jokin Uzkudun Goenaga.
Nerea Agirretxe Aranburu.
Iñaki Irulegi Apalantza.
Leire Beristain Mendizabal.
Luis Berrondo Lanceta.

Bertaratu gabea:

Harkaitz Arruti Eizagirre.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Errezilgo Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta hamaikako abuztuaren hamaikako hogeita bat ordu eta hamar minutu izanik, Errezilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA: 2011KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN ETA PLANTILLA ORGANIKOAREN HASIERAKO ONARPENA.

Gai zerrendako puntu hau dagokion Batzorde Informatzaileak diktaminatua izan ez denez, azaroaren 28ko 2568/86 Erret Dekretuaren 82.3 artikuluan agindutakoa beteaz, berau gai-zerrendan sartzea Udalbatzaren berrespenera jartzen da.

Puntu hau gai-zerrendan sartzea Udalbatzak aho batez berresten du.

Idazkariak 2011ko aurrekontuaren berri ematen du eta adierazten du hasierako aurrekontua 777.968,04 €-takoa dela, kapituloka laburpena ondorengoa delarik:

SARRERAK.

I KAP	ZUZENEKO ZERGAK	122.800,00
II KAP	ZEHARKAKO ZERGAK	40.000,00
III KAP	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	60.900,00
IV KAP	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	475.700,00
V KAP	ONDARE SARRERAK	12.000,00
VI KAP	INBERTSIOAK BESTERENGANATZEA	2.933,04
VII KAP	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	39.635,00
IX KAP	FINANTZA PASIBOAK	24.000,00

GUZTIRA **777.968,04**

GASTUAK

I KAP	PERTSONAL GASTUAK	207.650,00
II KAP	GASTUAK	287.420,00
III KAP	FINANTZA GASTUAK	17.500,00
IV KAP	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	72.878,04
VI KAP	INBERTSIO ERREALAK	90.520,00
VII KAP	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	15.000,00
IX KAP	FINANTZA PASIBOAK	87.000,00

GUZTIRA **777.968,04**

Ondoren, Idazkariak aurrekontuaren inguruan prestaturiko dokumentazioaren berri ematen du.

Bozketa egin ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Nerea Agirretxe Aranburu, Iñaki Irulegi Apalantza, Luis Berrondo Lanceta eta Leire Beristain Mendizabal.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Ondoren, Nereak aipatzen du, desbrozadora zaharrari jugoa ateratzea komeni dela.

Beraz, aurrekontua eta honen inguruko espedientea onartua gelditzen da.

Ondoren, Idazkariak aipatzen du, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan aipatzen dena beteaz, aurrekontua jendeaurreko informaziora jarri behar dela, Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den lanegunetik hasi eta hamabost

laneguneko epean erreklamazioak aurkeztu ahal izateko eta inolako erreklamaziorik ez badago, behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Urtero bezela, aurrekontuarekin batera, Udaletxeko plantila organikoa eta udal lanpostu zerrendak onartu behar direnez, 2011 ekitaldirako plantila organikoa Alkateak honako hauek izatea proposatzen du:

PLANTILA ORGANIKOA.

1.- Idazkari-Kontuhartzailea.

Lanpostuak-1
Taldea-A1
Egoera-H
Udalhitz maila-19

2.- Administrazio Orokorreko Administrari laguntzailea.

Lanpostuak-1
Taldea-C2
Egoera-J
Udalhitz maila-11

3.- Aguazila/Jakin eratzailer/ Lurpera.

Lanpostuak-1
Taldea-Agrup prof
Egoera-F
Udalhitz maila-11

4.- Garbitzailea.

Lanpostuak-1
Taldea-Agrup prof
Egoera-F
Udalhitz maila-7

Tramitea jarraituaz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, jendeaurrean egoten den 15 egunetako epean inolako erreklamaziorik ez badago, behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Bozketa egin ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Nerea Agirretxe Aranburu, Iñaki Irulegi Apalantza, Luis Berrondo Lanceta eta Leire Beristain Mendizabal.

2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz akordioa onartuta geratzen da.

BIGARRENGO PUNTUA:
2011 EKITALDIKO LANPOSTUEN ZERRENDAREN HASIERAKO ONARPENA.

Gai zerrendako puntu hau dagokion Batzorde Informatzaileak diktaminatua izan ez denez, azaroaren 28ko 2568/86 Erret Dekretuaren 82.3 artikuluan agindutakoa beteaz, berau gai-zerrendan sartzea Udalbatzaren berrespenera jartzen da.

Puntu hau gai-zerrendan sartzea Udalbatzak aho batez berresten du.

Idazkariak gaiaren laburpen bat egiten du:

UDAL LANPOSTU ZERRENDA.

1.- Idazkari-Kontuhartzailea:

Eskala- Estatuko gaitasuna.
Azpieskala- Idazkaritza-Kontuhartzaitza
Izaera- Funtzionaria
Taldea-A1
Maila-19
Dedikazioa- %100
Hizkuntz eskakizuna- 4^a
Derrigortasun data- 1991-06-27
Titulazioa- Z/E/S Liz
Hornitzeko sistema- lehiaketa

2.- Administrari laguntzailea:

Eskala- Administrazio Orokorra
Azpieskala- Administrari laguntzailea
Izaera- Funtzionaria
Taldea-C2
Maila-11
Dedikazioa- %100
Hizkuntz eskakizuna- 3^a
Derrigoratsun data- 1993-02-26
Titulazioa- Lanbide heziketa
Hornitzeko sistema- lehiaketa

3.- Aguazila:

Izaera- Laborala
Taldea- Agrup prof
Maila-11
Dedikazioa- %100
Hizkuntz eskakizuna- 2^a
Derrigortasun data- 1991-06-27
Titulazioa- Eskola graduatua

4.- Garbitzailea:

Izaera- Laborala
Taldea-Agrup prof
Maila-7
Dedikazioa- %100
Hizkuntz eskakizuna- 1^a
Derrigortasun data- 2011-08-11
Titulazioa- Eskolaritate ziurtagiria

Tramitea jarraituaz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, jendeaurrean egoten den 15 egunetako epean inolako erreklamaziorik ez badago, behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Bozketa egin ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Nerea Agirretxe Aranburu, Iñaki Irulegi Apalantza, Luis Berrondo Lanceta eta Leire Beristain Mendizabal.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, akordioa onartua gelditzen da.

HIRUGARREN PUNTUA: ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA.

Gai zerrendako puntu hau dagokion Batzorde Informatzaileak diktaminatua izan ez denez, azaroaren 28ko 2568/86 Erret Dekretuaren 82.3 artikuluan agindutakoa beteaz, berau gai-zerrendan sartzea Udalbatzaren berrespenera jartzen da.

Puntu hau gai-zerrendan sartzea Udalbatzak aho batez berresten du.

Idazkariak Euskal Herria Nazioak txirringularitzari BAI, inposaketari EZ-en inguruan aurkezturiko mozioa literalki irakurtzen du:

1.- Osoko Bilkura honetan dauden ordezkariak guztiek Espainiako itzulia Euskal Herrira etortzearen inguruko iritzia ematea.

2.- Udal honek, osoko bilkuran parte hartu duten ordezkarien erantzun eta iritzia publikoki plazaratzea.

3.- Euskal Herrian zazpi herrialdez, 21.000 km² eta 3.000.000 herritarrez osaturiko nazioa gara. Gure buruaren jabe izan eta nazioartean gure herria ordezkatzeko eskubidea dugula eta halere, Espainiar eta frantsez estatuek gure etorkizuna erabaki ahal izateko eskubidea ukatzen digutela aldarrikatzen dugu.

4.- Gure nazioa izatea ukatzen digutenek, ukazio hori berresteko helburuarekin dakartela kirol froga garrantzitsu hau gure herrira. Horregatik, udalbatza honek, Espainiari itzulia ez dela ongia etorria Euskal Herrian ez eta gure herrian aldarrikatzen dugu.

5.- Txirrindularitzari bai, inposaketari ez, Euskal Herria nazioa lelopean aurkezturiko adierazpenarekin bat egitea. Bat egite honen jakinerazpena, ohiko komunikabideen bidez zabaltzea eta udal honek ordezkatzeko dituen herritarrekin harremanetan jartzeko dituen ohiko bideen adierazpen honen berri ematea herritarrei.

6.- Espainiar itzulia Euskal Herrian sartzea espero den egunetan udaleko bakoian txirrindularitzari bai, inposaketari ez, Euskal Herria nazioa leloa modu ikusgarri batean zintzilikatzea.

Bozketa egin ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzquidun Goenaga eta Nerea Agirretxe Aranburu.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: Iñaki Irulegi Apalantza, Luis Berrondo Lanceta eta Leire Beristain Mendizabal.

Beraz, mozioa onartuta geratzen da.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko bederatziak eta berrogeita bost minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.